



PRENTSA DOZIERA

2022ko urriaren 12ko prentsaitzinekoa, Baionan

-
- Beñat Molimos, EHLG-ren kolehendakaria
 - Antton Cabanne, EHLG-ren Lagunak taldearen lehendakaria
 - Iker Elosegi, EHLG-ren koordinatzailea

Prensa harremanak : Maritxu Inçagaray Haiçaguerre (maritxu@ehlgbai.org)
Euskal Herriko Laborantza Ganbara : 05 59 37 18 82 | www.ehlgbai.org

Euskal Herriko Laborantza Ganbarak (EHLG) bere emaitza kanpaina eramanen du 2022ko urriaren 17tik azaroaren 27ra.

Klima, energia, ingurumena, elikadura eta gizarte erronkeri begira, laborantza herrikoiak erantzunak badituela segur gira. Ondoko asteetan, hori azalduko diegu gure emaile eta etorkizuneko emaileeri, iduritzen baitzauku bakoitzak lagundu dezakeela trantsizio horiek eraikitzen !

LABORANTZA HERRIKOIAK GAKOAK DITU

Laborariek urte zaila bizi duten bitartean (lehengaien kostuaren emendatzea, udako ezohiko idortea), laborantza herrikoiak baizik ez ditu klima, energia, ingurumen, elikagai eta gizarte-trantsizioen beharreri erantzunen.

Eskaintzen duen ikuspegi globalari esker, laborantza herrikoiak gizartearen beharreri eta naturaren eta harekin egunero lan egiten duten laborarien errespetu-eskakizuneri erantzuten dieten aterabideak proposatzen ditu.

Laborantza herrikoia ereduak laborarieri beren praktikak egokitzeko eta norabidez aldatzeko parada emaiten die, honetarako :

- jendea elikatu, kalitatezko janari sana ekoiztuz
- ekoizpen-sistemak dibertsifikatu eta/edo norabidez aldatu lurraldeko elikadura beharreri erantzuteko : klimari egokiak diren ekoizpenak, herritarren beharreri erantzuten dutenak (lekadun, barazki eta fruitu gehiago)
- bizia errespetatzen duten praktika agroekologiko berritzaileak asmatu
- hobeki bizitzeko parada emango dieten ekoizpen-sistemak pentsatu
- autonomia azkartu etxaldean (diruaren aldetik eta teknikoki)
- harremanak garatu kontsumitzaileekin
- harremanak azkartu laborarien artean

Laborantza-eredu baten alde lan egiteko, erabaki politikoak ere hartu behar dira.

Laborantza herrikoia erabakiak hartzen laguntzeko tresna da hainbat eragileentzat, lurralde-elkargoentzat adibidez.

EHLG : LABORANTZA HERRIKOIAREN GARAPENERAKO TRESNA

EHLG eta laborariak ez dira beha egon. Badu 17 urte baino gehiago laborariek zentzu hortara lan egiten dutela EHLGren laguntzarekin, haien etxaldeak laborantza herrikoia zentzura kudeatuz eta trantsizio agroekologikoko tresnak asmatuz.

Trantsizio agroekologikoko tresnak asmatzea eta plantan ezartzea, laborariekin eskuz-esku

- lurzorua emankortasuna hobetzea
- ur-baliabidea zaintzea
- tokiko klimari egokituak diren laborantza-teknikak garatzea
- alha eta belar-baliabideak kudeatzea
- tokiko baliabideak balorizatzea

- hesien landatzea eta etxaldeetan agro-oihangintza moldeko kudeaketa sustatzea
- ekoizpen-kostuak kalkulatzeko laguntzea
- etab.

Hautetsiekin batera gogoeta eramaitea eta aterabideak proposatzea

- tokiko hautetsi eta lurra plangintzatzen duen egiturekin inplikatzeko eta gogoetatzea
- Ipar Euskal Herriko lurraldeari lotu gogoetetan parte hartzea
- Iparraldeko elikaduraren arloan animatu lanak segitzea
- etab.

EMAILEAK : EHLG-ren FUNTZIONAMENDUARENTZAT BEHARREZKO ZUTABEA

Trantsizio horiek eraikitzen laguntzeko molde bat da Euskal Herriko Laborantza Ganbararen lana emaitza baten bidez sostengatzea.

Izan partikular bat ala enpresa, EHLG laguntzea, Euskal Herriko laborantza herrikoia sostengatzea da, trantsizioan parte hartzea da.

Trantsizioak gure esku dira !

Emaitza egin : www.ehlgbai.org

Kanpaina jarraitzeko eta EHLG-ren lana hobeki ulertzeko bideak segi :



<https://www.facebook.com/EuskalHerrikoLaborantzaGanbara/>



<https://www.instagram.com/laborantzaganbara/>